# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**3751**

**20/2010 FORU DEKRETUA, maiatzaren 25eko Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2010eko araubide erraztua ezarri zuen Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 2ko 8/2010 Foru Dekretua aldatu da.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onartu duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuko 34. artikuluan ezarri da finkatzen diren jarduera jakin batzuei araubide erraztua aplikatuko zaiela.

Martxoaren 2ko 8/2010 Foru Dekretuaren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2010eko araubide berezi erraztua ezarri da.

Ondoren, apirilaren 28ko EHA/1059/2010 Aginduaren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuko modulu batzuk txikitu dira, hain zuzen ere norbanakoen etxebizitzen berrikuntzen eta konponketen gaineko karga tasa txikitua aplikatzen zaien jarduera ekonomikoei dagozkienak.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera zerga jakin batzuk itunduta daude. Horren arabera, lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuak ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberak aplikatu behar dituzte zerga horiek kudeatzeko, kasu batzuetan berezitasunak egon badaitezke ere.

Ondorioz, foru dekretu honen xedea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuko modulu batzuk txikitzea da, hain zuzen ere norbanakoen etxebizitzen berrikuntzen eta konponketen gaineko karga tasa txikitua aplikatzen zaien jarduera ekonomikoei dagozkien moduluak.

Gainera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 81. artikulua aldatu da. Artikulu horren testua apirilaren 13ko 13/2010 Foru Dekretuak finkatu zuen; foru dekretu honen bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia aldatu zen Europar Batasunaren zuzentarau batzuk eransteko eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautu zituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretua aldatu zen.

Arabako Foru Aldundiaren Aholku Batzordearen Araudi Organikoak 3. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutakoari jarraituz, aipatutako batzordearen txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Hori dela bide, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2010eko araubide erraztua ezarri duen martxoaren 2ko 8/2010 Foru Dekretuak jarduera ekonomiko batzuetarako onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuko moduluak aldatzea.

Ondoko jarduera ekonomiko hauen moduluak aldatu dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2010eko araubide erraztua ezarri duen martxoaren 2ko 8/2010 Foru Dekretuaren II. eranskinean ezarritako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuan:

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**3751**

**DECRETO FORAL 20/2010, del Consejo de Diputados de 25 de mayo, que modifica el Decreto Foral 8/2010, de 2 de marzo, que reguló para 2010 el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido.**

El artículo 34 del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, establece que el régimen simplificado de este Impuesto se aplica a las actividades que se determinen.

Mediante Decreto Foral 8/2010, de 2 de marzo, se regula para el año 2010 el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Posteriormente mediante Orden EHA/1059/2010, de 28 de abril, se reducen los módulos del régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido para las actividades económicas afectadas por la reducción del tipo impositivo aplicable a las actuaciones de renovación o reparación de viviendas particulares.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, regula en su articulado la concertación de determinados tributos en el sentido de que las instituciones competentes de los Territorios Históricos deben aplicar las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado, con ciertas peculiaridades en algunos casos.

En consecuencia el objeto del presente Decreto Foral es reducir los módulos del régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido para las actividades económicas afectadas por la reducción del tipo impositivo aplicable a las actuaciones de renovación o reparación de viviendas particulares.

Así mismo, se modifica la redacción dada al artículo 81 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, por el Decreto Foral 13/2010, de 13 de abril, mediante el que se incorporan determinadas directivas comunitarias, y a su vez modifica el Decreto Foral 71/2008, de 8 de julio, que regula las obligaciones relativas al número de identificación fiscal y su composición.

Según lo previsto en el párrafo tercero del artículo 3 del Reglamento Orgánico de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava, no es preceptivo el informe de la citada Comisión.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Artículo Único. Modificación de los módulos aprobados, a efectos del régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido, para determinadas actividades económicas por el Decreto Foral 8/2010, de 2 de marzo, que regula para el 2010 el régimen simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Los módulos aprobados, a efectos del régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido, por el Anexo II del Decreto Foral 8/2010, de 2 de marzo, que regula para el 2010 el régimen simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido, para las actividades económicas que se indican a continuación, se sustituirán por los siguientes:

JARDUERA: INSTALAZIO ETA MUNTAKETAK (ITURGINTZA, HOTZ, BERO ETA AIRE GIROTZEKOAK IZAN EZIK)

JEZen epigrafea: 504.1

| MODULUA | DEFINIZIOA | UNITATEA | URTEKO KUOTA, UNITATEKO EUROAK |
|---|---|---|---|
| 1 | Enplegaturiko langileak | Pertsona | 4.622,09 |
| 2 | Energia elektrikoaren kontsumoa | 100 kWh | 30,45 |
| 3 | Ibilgailuaren zerga potentzia | CVF | 3,72 |

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren % 19.

JARDUERA: ITURGINTZAKO, HOTZ, BERO ETA AIRE GIROTZEKO INSTALAZIOAK.

JEZen epigrafea: 504.2 eta 3

| MODULUA | DEFINIZIOA | UNITATEA | URTEKO KUOTA, UNITATEKO EUROAK |
|---|---|---|---|
| 1 | Enplegaturiko langileak | Pertsona | 4.796,06 |
| 2 | Energia elektrikoaren kontsumoa | 100 kWh | 51,40 |
| 3 | Ibilgailuaren zerga potentzia | CVF | 2,97 |

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren % 20.

JARDUERA: TXIMISTORRATZAK ETA ANTZEKOAK INSTALATZEA. MOTA GUZTIETAKO SUKALDEAK MUNTATU ETA INSTALATZEA, BERAIEN ALDAGAILUEN MOTA ETA TIPO GUZTIAK BARNE. MOTA GUZTIETAKO IGOGAILUAK MUNTATZEA ETA INSTALATZEA. ERAIKIN ETA ERAIKUNTZA GUZTIETAN TELEFONO, TELEGRAFO, HARIRIK GABEKO TELEGRAFO ETA TELEBISTAK INSTALATZEA. METALEZKO MUNTAIAK ETA INDUSTRI INSTALAZIO OSOAK; BAINA MAKINERIA ETA EZARRI EDO MUNTATU BEHAR DIREN OSAGAIAK SALDU ETA EKARRI GABE.

JEZen epigrafea: 504.4, 5, 6, 7 eta 8

| MODULUA | DEFINIZIOA | UNITATEA | URTEKO KUOTA, UNITATEKO EUROAK |
|---|---|---|---|
| 1 | Enplegaturiko langileak | Pertsona | 4.622,09 |
| 2 | Energia elektrikoaren kontsumoa | 100 kWh | 30,45 |
| 3 | Ibilgailuaren zerga potentzia | CVF | 3,72 |

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren % 19.

JARDUERA: GAINJAZKI, ZORUKETA ETA ZOLADURAK; ETA ISOLAMENDUAK INSTALATZEA.

JEZen epigrafea: 505.1, 2, 3 eta 4

| MODULUA | DEFINIZIOA | UNITATEA | URTEKO KUOTA, UNITATEKO EUROAK |
|---|---|---|---|
| 1 | Enplegaturiko langileak | Pertsona | 2.443,50 |
| 2 | Lokalaren azalera | Metro karratua | 5,93 |
| 3 | Ibilgailuaren zerga potentzia | CVF | 59,31 |

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren % 20.

JARDUERA: AROZGINTZA ETA SARRAILAGINTZA.

JEZen epigrafea: 505.5

| MODULUA | DEFINIZIOA | UNITATEA | URTEKO KUOTA, UNITATEKO EUROAK |
|---|---|---|---|
| 1 | Enplegaturiko langileak | Pertsona | 3.368,71 |
| 2 | Ibilgailuaren zerga potentzia | CVF | 17,00 |

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren % 20.

ACTIVIDAD: INSTALACIONES Y MONTAJES (EXCEPTO FONTANERÍA, FRÍO, CALOR Y ACONDICIONAMIENTO DE AIRE).

Epígrafe IAE: 504.1

| MÓDULO | DEFINICIÓN | UNIDAD | CUOTA DEVENGADA ANUAL POR UNIDAD EUROS |
|---|---|---|---|
| 1 | Personal empleado | Persona | 4.622,09 |
| 2 | Consumo de energía eléctrica | 100 Kw hora | 30,45 |
| 3 | Potencia fiscal vehículo | CVF | 3,72 |

Cuota mínima por operaciones corrientes: 19 por ciento de la cuota devengada por operaciones corrientes.

ACTIVIDAD: INSTALACIONES DE FONTANERÍA, FRÍO, CALOR Y ACONDICIONAMIENTO DE AIRE).

Epígrafe IAE: 504.2 y 3

| MÓDULO | DEFINICIÓN | UNIDAD | CUOTA DEVENGADA ANUAL POR UNIDAD EUROS |
|---|---|---|---|
| 1 | Personal empleado | Persona | 4.796,06 |
| 2 | Consumo de energía eléctrica | 100 Kw hora | 51,40 |
| 3 | Potencia fiscal vehículo | CVF | 2,97 |

Cuota mínima por operaciones corrientes: 20 por ciento de la cuota devengada por operaciones corrientes.

ACTIVIDAD: INSTALACIÓN DE PARARRAYOS Y SIMILARES. MONTAJE E INSTALACIÓN DE COCINAS DE TODO TIPO Y CLASE, CON TODOS SUS ACCESORIOS. MONTAJE E INSTALACIÓN DE APARATOS ELEVADORES DE CUALQUIER CLASE Y TIPO. INSTALACIONES TELEFÓNICAS, TELEGRÁFICAS, TELEGRÁFICAS SIN HILOS Y DE TELEVISIÓN, EN EDIFICIOS Y CONSTRUCCIONES DE CUALQUIER CLASE. MONTAJES METÁLICOS E INSTALACIONES INDUSTRIALES COMPLETAS, SIN VENDER NI APORTAR LA MAQUINARIA NI LOS ELEMENTOS OBJETO DE LA INSTALACIÓN O MONTAJE.

Epígrafe I.A.E.: 504.4, 5, 6, 7 y 8

| MÓDULO | DEFINICIÓN | UNIDAD | CUOTA DEVENGADA ANUAL POR UNIDAD EUROS |
|---|---|---|---|
| 1 | Personal empleado | Persona | 4.622,09 |
| 2 | Consumo de energía eléctrica | 100 Kw hora | 30,45 |
| 3 | Potencia fiscal vehículo | CVF | 3,72 |

Cuota mínima por operaciones corrientes: 19 por ciento de la cuota devengada por operaciones corrientes.

ACTIVIDAD: REVESTIMIENTOS, SOLADOS Y PAVIMENTOS Y COLOCACIÓN DE AISLAMIENTOS.

Epígrafe I.A.E.: 505.1, 2, 3 y 4

| MÓDULO | DEFINICIÓN | UNIDAD | CUOTA DEVENGADA ANUAL POR UNIDAD EUROS |
|---|---|---|---|
| 1 | Personal empleado | Persona | 2.443,50 |
| 2 | Superficie del local | Metro cuadrado | 5,93 |
| 3 | Potencia fiscal vehículo | CVF | 59,31 |

Cuota mínima por operaciones corrientes: 20 por ciento de la cuota devengada por operaciones corrientes.

ACTIVIDAD: CARPINTERÍA Y CERRAJERÍA.

Epígrafe I.A.E.: 505.5

| MÓDULO | DEFINICIÓN | UNIDAD | CUOTA DEVENGADA ANUAL POR UNIDAD EUROS |
|---|---|---|---|
| 1 | Personal empleado | Persona | 3.368,71 |
| 2 | Potencia fiscal vehículo | CVF | 17,00 |

Cuota mínima por operaciones corrientes: 20 por ciento de la cuota devengada por operaciones corrientes.

JARDUERA: MOTA GUZTIETAKO PINTURA, PAPER, EHUN EDO PLASTIKOZKO ESTALDURAK, ETA ERAIKINAK ETA LOKALAK BUKATU ETA APAINTZEA.

JEZen epigrafea: 505.6

| MODULUA | DEFINIZIOA | UNITATEA | URTEKO KUOTA, UNITATEKO EUROAK |
|---|---|---|---|
| 1 | Enplegaturiko langileak | Pertsona | 2.641,20 |
| 2 | Ibilgailuaren zerga potentzia | CVF | 14,24 |

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren % 30.

JARDUERA: IGELTSU ETA ESKAIOLAZKO LANAK, ETA ERAIKIN ETA LOKALEN DEKORAZIOA.

JEZen epigrafea: 505.7

| MODULUA | DEFINIZIOA | UNITATEA | URTEKO KUOTA, UNITATEKO EUROAK |
|---|---|---|---|
| 1 | Enplegaturiko langileak | Pertsona | 2.641,20 |
| 2 | Ibilgailuaren zerga potentzia | CVF | 14,24 |

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren % 30.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Foru dekretu honetan ezarritako jardueren titularrek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuari uko egiteko edo ukoa ezeztatzeko epealdi berezia.

1. Foru dekretu honetan ezarritako jardueretako bat egiten duten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek uko egin nahi badiote 2010ean araubide berezi erraztuari, edo uko egin ondoren hura ezeztatu nahi badute, ALHAOn argitaratzen denetik 2010eko ekainaren 30era arteko epealdia edukiko dute aukera horretaz baliatzeko.

2. Aipatutako subjektu pasiboek araubide berezi erraztuari uko egiteko edo ukoa ezeztatzeko eskatzen badute 2010erako arauz ezarritako epealdietan, eskaera aurkeztutzat joko da.

Hala ere, subjektu pasibo horiek aukera aldatu ahal izango dute aurreko idatz zatian ezarritako epealdiaren barruan.

Bigarrena. Nola kalkulatu behar dituzten foru dekretu honetan ezarritako jardueren titularrek 2010. urteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako kuotak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuan.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga araubide berezi erraztua aplikatuta ordaintzen duten foru dekretu honetan ezarritako jardueren titularrek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2009ko araubide berezi erraztua ezarri duen abenduaren 16ko 105/2008 Foru Dekretuak onartutako moduluak erabili behar dituzte 2010eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako kuotak kalkulatzeko. Hona hiruhileko horietako kuotak kalkulatzeko aplikatu beharreko ehunekoen taula:

| JEZ | JARDUERA EKONOMIKOA | EHUNEKOA |
|---|---|---|
| 504.1 | Instalazio eta muntaketak (iturgintza, hotz eta bero instalazioak eta airea girotzekoak izan ezik) | 4 |
| 504.2 eta 3 | Iturgintza, hotz eta bero instalazioak eta airea girotzekoak | 5 |
| 504.4,5,6,7 eta 8 | Tximistorratzak eta antzekoak instalatzea. Mota guztietako sukaldeak muntatzea eta instalatzea euren osagarri guztiekin. Mota guztietako goragailuen muntaketa eta instalazioa. Edozein motatako eraikinetan telefonoa, telegrafoa, haririk gabeko telegrafoa eta telebista instalatzea. Metalezko muntaiak eta industri instalazio osoak; baina makineria eta ezarri edo muntatu behar diren osagaiak saldu eta ekarri gabe | 4 |
| 505.1, 2, 3 eta 4 | Estaldurak, zolak eta zoladurak, eta isolamenduak instalatzea | 5 |
| 505.5 | Arozgintza eta sarrailagintza | 5 |
| 505.6 | Edozein tipo eta motatako pintura, eta paper, ehun edota plastikozko gainjazkiak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa | 7 |
| 505.7 | Pintura, igeltsu eta eskaiolazko lanak, eta eraikin eta lokalen dekorazioa | 7 |

Hirugarrena. Nola kalkulatu behar duten foru dekretu honetan ezarritako jardueren titularrek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2010. urteko kuota araubide berezi erraztuan.

ACTIVIDAD: PINTURA DE CUALQUIER TIPO Y CLASE Y REVESTIMIENTOS CON PAPEL, TEJIDO O PLÁSTICOS, Y TERMINACIÓN Y DECORACIÓN DE EDIFICIOS Y LOCALES.

Epígrafe I.A.E.: 505.6

| MÓDULO | DEFINICIÓN | UNIDAD | CUOTA DEVENGADA ANUAL POR UNIDAD EUROS |
|---|---|---|---|
| 1 | Personal empleado | Persona | 2.641,20 |
| 2 | Potencia fiscal vehículo | CVF | 14,24 |

Cuota mínima por operaciones corrientes: 30 por ciento de la cuota devengada por operaciones corrientes.

ACTIVIDAD: TRABAJOS EN YESO Y ESCAYOLA Y DECORACIÓN DE EDIFICIOS Y LOCALES.

Epígrafe I.A.E.: 505.7

| MÓDULO | DEFINICIÓN | UNIDAD | CUOTA DEVENGADA ANUAL POR UNIDAD EUROS |
|---|---|---|---|
| 1 | Personal empleado | Persona | 2.641,20 |
| 2 | Potencia fiscal vehículo | CVF | 14,24 |

Cuota mínima por operaciones corrientes: 30 por ciento de la cuota devengada por operaciones corrientes.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. Plazo especial de renuncias o revocaciones al régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido para los titulares de las actividades previstas en el presente Decreto Foral.

1. Los sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido que ejerzan las actividades referidas en el presente Decreto Foral, y deseen renunciar o revocar su renuncia al régimen especial simplificado para el año 2010 podrán ejercitar dicha opción desde el día siguiente a la fecha de su publicación en el BOTHA hasta el 30 de junio de 2010.

2. Las renuncias o revocaciones al régimen especial simplificado que se hubiesen presentado por estos sujetos pasivos en los plazos reglamentarios previstos para 2010 se entenderán como presentadas.

No obstante, estos sujetos pasivos podrán modificar su opción en el plazo previsto en el apartado anterior.

Segunda. Cuotas trimestrales del régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido referentes al segundo y tercer trimestre del año 2010 a realizar por los titulares de las actividades previstas en el presente Decreto Foral.

Los titulares de las actividades a que se refiere el presente Decreto Foral que tributen por el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido, determinarán las cuotas trimestrales correspondientes al segundo y tercer trimestre de 2010 utilizando los módulos aprobados por el Decreto Foral 105/2008, de 16 de diciembre, que regula para el 2009 el régimen simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido. A tal efecto, los porcentajes para el cálculo de dichas cuotas trimestrales serán los siguientes:

| IAE | ACTIVIDAD ECONÓMICA | PORCENTAJE |
|---|---|---|
| 504.1 | Instalaciones y montajes (excepto fontanería, frío, calor y acondicionamiento de aire) | 4 |
| 504.2 y 3 | Instalaciones de fontanería, frío, calor y acondicionamiento de aire | 5 |
| 504.4,5,6,7 y 8 | Instalación de pararrayos y similares. Montaje e instalación de cocinas de todo tipo y clase, con todos sus accesorios. Montaje e instalación de aparatos elevadores de cualquier clase y tipo. Instalaciones telefónicas, telegráficas, tele gráficas sin hilos y de televisión, en edificios y construcciones de cualquier clase. Montajes metálicos e instalaciones industriales completas, sin vender ni aportar la maquinaria ni los elementos objeto de la instalación o montaje | 4 |
| 505.1, 2, 3 y 4 | Revestimientos, solados y pavimentos y colocación de aislamientos | 5 |
| 505.5 | Carpintería y cerrajería | 5 |
| 505.6 | Pintura de cualquier tipo y clase y revestimiento con papel, tejidos o plásticos y terminación y decoración de edificios y locales | 7 |
| 505.7 | Trabajos en yeso y escayola y decoración de edificios y locales | 7 |

Tercera. Cálculo de la cuota anual devengada del año 2010 del régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido a realizar por los titulares de las actividades previstas en el presente Decreto Foral.

Foru dekretu honetan ezarritako jardueren titularrek Balio Erantsiaren gaineko Zerga araubide berezi erraztuaren arabera ordaintzen badute, urtea amaitutakoan edo jarduerari utzitakoan edo bolada amaitutakoan, urtean sortutako kuota kalkulatu eta ekitaldiko azken aitorpen-likidazioan ezartzeko, lehenbizi egutegiko urtean jardueran aritu den aldi osoko zeinu, indize edo moduluen batez bestekoa zehaztu behar dute foru dekretu honek onartutako moduluen bitartez.

Laugarrena. 124/1993 Foru Dekretuak onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 81. artikulua aldatu da. Artikulu horren testua apirilaren 13ko 13/2010 Foru Dekretuak finkatu zuen; foru dekretu honen bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia aldatu zen Europar Batasunaren zuzentarau batzuk eransteko eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautu zituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretua aldatu zen.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onartu duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuko 81. artikulua aldatu da eta honela geratu da (aldaketak 2010eko maiatzaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“81. artikulua. Eragiketak laburbiltzeko aitorpena aurkezteko tokia, modua eta epealdiak.

1. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du non eta nola (zein eredutan) aurkeztu behar den laburpen aitorpena.

2. Aitorpeneko aldia eta eragiketen laburpen aitorpena aurkezteko epealdiak ondoko hauek izango dira:

1. Oro har, egutegiko hil bateko eragiketei buruzko laburpen aitorpena hurrengo hileko egutegiko lehen hogeita bost egunetan aurkeztu behar da, uztailekoa izan ezik: hau abuztuan eta iraileko egutegiko lehen hamar egunetan aurkeztu ahal izango da.

2. Ez erreferentziako hiruhilekoan, ez egutegiko aurreko lau hiruhilekoetan, laburpen aitorpenean agertu beharreko ondasun emateen eta Batasunaren barruan egindako zerbitzuen guztirako zenbateko metatua 50.000 euro baino gehiago ez bada (Balio Erantsiaren gaineko Zerga zenbatu gabe), eragiketei buruzko laburpen aitorpena hiruhilekoaren ondoko hileko egutegiko lehen hogeita bost egunetan aurkeztu behar da.

Baldin eta egutegiko hiruhileko bateko hil batean aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa gainditzen bada, egutegiko hiruhileko horren hasieratik egindako eragiketei buruzko laburpen aitorpena aurkeztu behar da egutegiko ondoko hogeita bost egunetan.

3. Artikulu honetako 2. idatz zatian aipatzen diren kasu guztietan, urteko azken aldiko laburpen aitorpena hurrengo urteko urtarrileko egutegiko lehen hogeita hamar egunetan aurkeztu behar da.

4. Artikulu honetako 2. idatz zatian xedatutakoa gorabehera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak baimena eman dezake enpresaburuek eta profesionalek laburpen aitorpenean egutegiko urteko eragiketak jasotzeko. Horretarako bi baldintza hauek bete behar dira:

1. Egutegiko aurreko urtean egindako ondasun emateen eta zerbitzugintzen guztirako zenbatekoa ezin da izan 35.000 euro baino gehiago, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe.

2. Zergari buruzko Arauko 25. artikuluko lehenengo eta hirugarren idatz zatietan ezarritakoaren arabera Zergaren kargatik salbuetsita egutegiko aurreko urtean egindako ondasun emateen guztirako zenbatekoa ezin da izan 15.000 euro baino gehiago (garraiobide berrienak salbu).

5. Urtean zehar jarduera bati ekin bazaio, aurreko 4. idatz zatian aipatzen diren zenbatekoak kalkulatzeko jarduera egin den lehen hiruhilekoko eragiketak urte osorako zabaldu behar dira.”

Los titulares de las actividades a que se refiere el presente Decreto Foral que tributen por el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido, al finalizar el año o al producirse el cese de la actividad o la terminación de la temporada, deberán calcular, para la determinación de la cuota anual devengada y su reflejo en la última declaración-liquidación del ejercicio, el promedio de los signos, índices o módulos relativos a todo el período en que hayan ejercido la actividad durante dicho año natural, utilizando al efecto los módulos aprobados por el presente Decreto Foral.

Cuarta. Modificación de la redacción dada al artículo 81 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido aprobado por Decreto Foral 124/1993, mediante Decreto Foral 13/2010, de 13 de abril por el que se incorporan determinadas directivas comunitarias y se modifica el Decreto Foral 71/2008, de 8 de julio, que regula las obligaciones relativas al número de identificación fiscal y su composición.

Con efectos 1 de mayo de 2010, el artículo 81 del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, quedará redactado como sigue:

“Artículo 81. Lugar, forma y plazos de presentación de la declaración recapitulativa.

1. La presentación de la declaración recapitulativa se realizará en el lugar, forma y a través del modelo aprobado por el Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

2. El período de declaración y los plazos para la presentación de la declaración recapitulativa serán los siguientes:

1º Con carácter general, la declaración recapitulativa deberá presentarse por cada mes natural durante los veinticinco primeros días naturales del mes inmediato siguiente, salvo la correspondiente al mes de julio, que podrá presentarse durante el mes de agosto y los diez primeros días naturales del mes de septiembre.

2º Cuando ni durante el trimestre de referencia ni en cada uno de los cuatro trimestres naturales anteriores el importe total acumulado de las entregas de bienes que deban consignarse en la declaración recapitulativa y de las prestaciones intracomunitarias de servicios efectuadas sea superior a 50.000 euros, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, la declaración recapitulativa deberá presentarse durante los veinticinco primeros días naturales del mes inmediato siguiente al correspondiente período trimestral.

Si al final de cualquiera de los meses que componen cada trimestre natural se superara el importe mencionado en el párrafo anterior, deberá presentarse una declaración recapitulativa para el mes o los meses transcurridos desde el comienzo de dicho trimestre natural durante los veinticinco primeros días naturales inmediatos siguientes.

3. En todos los casos a que se refiere el apartado 2 este artículo, la declaración recapitulativa correspondiente al último período del año deberá presentarse durante los treinta primeros días naturales del mes de enero.

4. No obstante lo dispuesto en el apartado 2 de este artículo, el Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, podrá autorizar que la declaración recapitulativa se refiera al año natural respecto de aquellos empresarios o profesionales obligados a su presentación en los que concurran las dos circunstancias siguientes:

1º Que el importe total de las entregas de bienes y prestaciones de servicios, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, realizadas durante el año natural anterior no sea superior a 35.000 euros.

2º Que el importe total de las entregas de bienes, que no sean medios de transporte nuevos, exentas del impuesto de acuerdo con lo dispuesto en los apartados Uno y Tres del artículo 25 de la Norma del Impuesto realizadas durante el año natural anterior, no sea superior a 15.000 euros.

5. El cómputo de los importes a que se refiere el apartado 4 anterior, en el ejercicio de inicio de la actividad, se realizará mediante la elevación al año de las operaciones efectuadas en el primer trimestre natural de ejercicio de la actividad.”

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2010eko apirilaren 30etik aurrera sortuko ditu ondoreak (salbuespena: laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa).

Vitoria-Gasteizen, 2010eko maiatzaren 25ean.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

*Foru Aginduak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**3774**

**249/2010 FORU AGINDUA, maiatzaren 26koa. Honen bidez, adierazi egiten da interes publikokoa dela Lantarongo ziklo konbinatuko zentrala hornitzeko adarra jartzea.**

AURREKARIAK

Gas Natural Distribución SDG, SA enpresak obra baimena eskatu zion Lantarongo Udalari ziklo konbinatuko zentral termikora gasa eramateko adarra instalatzeko, urbanizaezin gisa sailkatu eta zenbait kalifikazio dituen lursailean.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak arautzen duen baimen izapideak betetzearren, Lantarongo Udalak espedientea bidali zuen, udal arkitektoaren txostena barne.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Sail honek eskumena du aztergai den espediente hau ebazteko, ekainaren 11ko Diputatuen Kontseiluaren 42/2008 Foru Dekretuarekin bat etorriz.

Sektorean aplikatu beharreko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikokotzat jotzen dituen hornigaiek, ekipoek eta jardunek baino ez dute lekua lurzoru urbanizaezinean, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Gainera, hala izanda ere, foru aldundiak interes publikoko izendatu behar izan ditu ebazpen bidez, hogei eguneko jendaurreko izapidea bete eta gero.

2010eko apirilaren 13an espedienteari hasierako onarpena ematen zion foru agindua eman eta ALHAOra bidali zen argitaratua izan zedin. Aldizkari horretan 2010eko apirilaren 21ean (43 zenbakia) argitaratu zen. Bestalde, espediente horren aurka erreklamazioak aurkezteko arauzko 20 egunetan ez zen inongo alegaziorik aurkeztu.

Aztertzen ari garen kasu hau interes publikokoa dela esateko, azpiegituraren helburuari begiratu diogu; izan ere, gasez hornitzea du helburu.

Bestalde, azpiegitura berak berez dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe:

XEDATU DUT

Lehenengoa.-, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluarekin bat etorriz, urbanizaezin bezala sailkatutako eta hainbat kalifikaziotako lurzoruan Lantaronen ziklo konbinatuko zentrala hornitzeko adarra jartzea interes publikokotzat jotzea, Gas Natural Distribución SDG, S.A.k sustatutako espendientearen arabera.

Bigarrena.- Adierazpen horrek ez du kentzen proiektua gauzatu aurretik legeak agintzen duen udal baimena eskuratu beharra, ez eta udala erabaki hau edo bestea hartzera behartzen ere.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA y surtirá efectos desde el día 30 de abril de 2010, salvo lo dispuesto en la Disposición Adicional Cuarta.

Vitoria-Gasteiz, 25 de mayo de 2010.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**3774**

**ORDEN FORAL 249/2010, de 26 de mayo, declarando de interés público la instalación de un ramal de suministro a la CTCC de Lantarón.**

ANTECEDENTES

Gas Natural Distribución SDG, S.A. solicitó ante el Ayuntamiento de Lantarón licencia de obras para la instalación de un ramal de suministro de gas a la Central Térmica de Ciclo Combinado, en terreno clasificado como No Urbanizable con distintas calificaciones.

El Ayuntamiento de Lantarón remitió el expediente para cumplimiento del trámite autorizatorio que ordena la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, incorporando el informe emitido por el arquitecto municipal.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Este Departamento es competente para resolver el expediente que se examina de conformidad con el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 42/2008, de 11 de junio.

De acuerdo con el régimen establecido en el art. 28.5.a) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, podrán llevarse a cabo en el suelo no urbanizable las actuaciones dirigidas específicamente y con carácter exclusivo al establecimiento de dotaciones, equipamientos y actividades declarados de interés público por la legislación sectorial aplicable o por el planeamiento territorial, y que en todo caso y para el caso concreto, sean además declaradas de interés público por resolución de la diputación foral correspondiente previo trámite de información pública de veinte días.

Con fecha 13 de abril de 2010 se dictó Orden Foral por la que se aprobaba inicialmente el expediente, remitiéndose para su publicación en el BOTHA, hecho que tuvo lugar en el núm. 43, de 21 de abril de 2010, sin que durante el plazo de 20 días habilitado se haya presentado alegación alguna.

El interés público en el supuesto examinado viene dado por la naturaleza de la infraestructura, la cual tiene por objeto el suministro de gas canalizado.

La necesidad del emplazamiento en el medio rural viene determinada por las características propias de la infraestructura.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Declarar de interés público, de conformidad con lo dispuesto en el art. 28.5.a) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, las obras para la instalación de un ramal de suministro de gas a la Central Térmica de Ciclo Combinado del municipio de Lantarón, en terreno clasificado como suelo no urbanizable con distintas calificaciones, según expediente promovido por Gas Natural Distribución SDG, S.A.

Segundo.- La presente declaración no exime de la obligación de obtener la preceptiva licencia municipal con carácter previo a la ejecución del proyecto, ni prejuzga el contenido del acuerdo municipal correspondiente.